




ETXE BAT NORBERARENA

liburuan oinarritutako
solasaldi musikatua

ZER EGINGO DUGU?

Liburua hizpide hartuta arituko gara solasean, kantuari eta hitz ozenari tarte utzita, aurrez aurreko giro goxoan.

TESTUAK ETA AHOTSA

Yolanda Arrieta Malaxetxebarria

KANTAK ETA SOINUAK

Pero Galbete Labiano

NOIZ

2025eko abenduaren 11an

ORDUA

18:00-19:30

NON

Ormaiztegiko liburutegian

Virginia Woolfek Gela bat norberarena aldarrikatzen zuen andrazko idazlearentzat.

Mende bat igaro da ordutik eta andre idazleak agian izendatu du etxean gela bat norberarena; baina, gero, bizitza iragazi zaio zirrikituetatik, eta hasieran soilik norberaren gogorako izan behar zuen gela hura «denen onerako» gela bilakatu da. Hortaz, gela nomadak bilatu behar izan ditu bere gogotik aritzeko; ihes beteko gela nomadak. Baina berak ez du ihes gehiago egin nahi. Andre idazleak mundua bere neurrira berrasmatzeko etxe bat eraiki nahi du:

etxe bat norberarena